

HARRERA PLANA

BIGARREN HEZKUNTZA - LAURO IKASTOLA

SARRERA-JUSTIFIKAZIOA

Harrera planaren helburua ikasle edo langile berriei Laur Ikastola esparru atsegin eta seguru bezala aurkeztea da, eta egokitzapen errea egitea, bai kanpotik badatoz, eta baita urte batzul lehenago bertakoak izan badira ere.

Ikastolak garantiza ematen die ikaslearen eta langilearen lehen momentuko harremanei ikastetxera iristen diren unean. Horregatik ezinbestekoa da egoera hau prestatzea integrazio egokia lortzeko.

Ikastola zein ikastaldea arguratu behar dira modu honetan denok abegitsu bihurtzen garelako, aniztasunean elkarbizitzen ikasten dugulako eta aberastu egiten garelako harreman berriekin.

HARTZAILEAK

- Ikastolara beste ikastetxe batzuetatik datozen ikasleak eta familiak
- Ikastolara ikasturte batean edo batzuetan etorri ez diren aurreko ikasleak eta familiak
- Irakasleak eta bestelako langile berriak

PARTE HARTZAILEAK

- Zuzendaritza taldea eta administrazioko eta atezaintzako langileak
- Ongi etorrirako komitea:
 - Etapako zuzendaria
 - Koordinatzailea
 - Tutorea
 - Irakasleak
 - Ikasle laguntzaileak
 - Orientatzailea

HELBURUAK

- Antolakuntzan behar diren egokiketak egitea, ikasle edo langile berrien onartze-egokitze-integrazioa modu koherentean bermatzeko.
- Etapa osoa motibatzea, giro egokia lortzeko ikasle edo langile berrientzat
- Gure ikasleen oreka eta autoestimua erraztea.
- Giro ordenatu eta eroso eskaintzea ikaskideen/lankideen arteko harremana bultzatzeko.
- Ikasle eta langile berriek ikastolaren funtzionamendua ulertzea eta ondo moldatzea ikaskide eta irakasleekin.

URRATSAK

Ikasle berriekin:

- 1.- Matrikulazio eta datu jasoketaren fitxa
- 2.- Zuzendariarekin elkarrizketa (ikaslea eta familia).
- 3.- Urteko programazio orokorra helaraztea (egutegi/ordutegiak, komunikazioa, gurasoentzako informazio bilerak, zerbitzuak, etxerako lanen jarraibideak, elkarbizitzaren jarraibide/araudiak, eskola virola eta kultur ekintzak eta ohikoenak diren galderen erantzunak).
- 4.- Irailako lehen egunetan:
 - Tutore zein irakasleei ikasle berrien notifikazioa
 - Tutoretza ordurako ikasle berriak aurkezteko eta talde kohesioa lantzeko dinamiken prestakuntza
 - Ikasle berriaren adaptazioaren jarraipena tutorearen partetik, aurrerago gurasoei komunikatuko zaiena
 - Ikasgelako Ikasle Laguntzaileen banakako aurkezpena eta harremanaren sorrera ekintza
 - Orientatzailearekin banakako elkarrizketa
 - Ikasle Laguntzaileekin ikastola osotik ibilbidea eta azalpenak (ikus eranskina)

Langile berriekin:

- 1.- Zuzendariarekin elkarrizketa eta informazio jasotzea
- 2.- Mintegiko lankideekin mailako eta zikloko koordinazioa
- 3.- Tutore izatekotan, tutore batzarrean aurkezpena eta koordinazioa
- 4.- Orientatzailearekin elkarrizketa

ERANSKINA: IKASLE LAGUNTZAILEEN HARRERA PROTOKOLOA

NESKA-MUTIL BERRIAK LAURON:

Ezagutu haien izenak eta zein klaseetan dauden beraiek ezagutu baino lehen.

Geure burua aurkeztu ikasle berriei, orientatzailearen laguntzarekin . Aurkeztu klaseari dinamikak egiten, tutorearen laguntzarekin (geuk prestatutakoak) eta Laurotik Tour bat egin (ikasle laguntzaileak, irakasle barik) erabiliko dituen klaseak eta espazio guztiak erakusten. 4. Mailan badago, ikasketa bidaiari buruzko datuak eman.

AURKEZPEN JOLASAK (errepikatzaileentzat ere):

Hobbyak, gustuak eta interesak partekatzko jolasa: Paper batean gure datuak (eskatutakoak) idatzi, paper guztiak nahastu eta bakoitzari bat egokituko zaio eta nor den asmatu behar du.

Datuak:

- Hobby
- Janari gustokoena
- Nora bidaiatu nahi duzu. (4. Mailan ikasketa bidaia).
- Zer superpotere euki nahiko zenuke.

Pilota jolasa: Borobil batean jartzen gara guztiok. Pilota erabiliz, lehenengoa jasotzen duenak bere izena eta nongoa den esan behar du eta beste kide bati pasatu. Hurrengoak bere izena, non bizi den eta aurreko kidearen datuak esan behar ditu eta horrela beti.

IBILBIDEA LAUROTIK:

Hasierako egunetan, tutorearen azalpenen ostean.

- 1.** Patioaren mugak erakutsi.
- 2.** Sarreran (1. Pisua): Agora (Agoraball), biblioteka, laborategia, zuzendaritza, auditorium-a, teknologia gela, komunak eta la atezainaren bulegoa (gauza galduak).
- 3.** (2. Pisua): 1 eta 2 mailen klaseak, mintegiak (ingelesa, Natur Zientziak, Matematika, biblioteka txikia), Plastika + Informatika gelak, komunak eta koordinatzailearen gela eta **ikasle laguntzaileen buzoia**.
- 4.** 3. Pisua: 3 eta 4 mailako klaseak, mintegiak (lengua, euskara eta Gizarte), komunak, koordinatzailearen gela , **Ikasle Laguntzaileen gela** eta laguntza bereziko gela.

- 5. Polikiroldegia:** kafetegia, bulegoa, igerilekuak, aldagelak (lehor eta urezkoak), sakibaloï pistak, rokodromoa, eta gradak.
 - 6.** Erizaindegia, jantokiak (txikia + handia) eta nola joan.
 - 7.** Futbol zelaia, tenis, saskibaloï zelaia eta barelikos.
 - 8.** (Bachiller) administrazioa.
- Kurtsoko kideen aurkezpena.

JOLAS ORDUETARAKO ESTRATEGIAK: (errepikatzaileentzat ere)

Mutilak: Futbolean, Agorabolean edo mutil gehienek egiten dituzten ekintzaren batean parte hartzeko aukera eskaini, edo iPad-arekin jolastea nahiago badu talde batera bideratu.

Neskak: Gure taldeetan egoteko aukera eskaini eta eta ondo konpontzen bada gurekin jarraitu. Nahiago badu, beste talderen bat edo batzuk aurkeztu.

HARRERA PLANAREN EBALUAZIOA:

Ikasle Laguntzaileen asteroko batzarretan baloratu zelan ikusten ditugun ikasle berriak eta arazorik balego irtenbideak proposatu